

3 Kirolak



Testua: Ana Jaka. Marrazkiak: Iosu Mitxelena.

BENETAKO PILOTARIAK

Batzuetan, marimatrakak auzoko frontoira joaten dira. Gaur amak lagundu ditu.

Frontoian Edur eta bere aita aurkitu dituzte, pilotan jolasten. Edur, neskatoak ikusi dituenean, asko poztu da. Oso jokalaria onak dira, bere aita baino azkarragoak.

—Hauekin jolastu behar al duzu? —esan dio aitak barrez. Eta esertzera joan da.

—Zergatik egin du barre? —galdetu dio Leak Edurri.

Sorbaldak jaso ditu Edurrek. Lotsatuta dirudi.

Edurrek tanto bat galtzen duen bakoitzean, bere aitak txistu egiten dio. Zergatik ez du bakean uzten? Ondo pasatzen ari dira..!

Ama ere deseroso dago. Ez zaio Edurren aitaren portaera gustatzen.

—Orain etorriko naiz, neskak. Ez mugitu hemendik —esan die. Eta alde egin du.

—Falta zena... —marmar egin du Edurren aitak—.

Hautzainarena egin behar!

Marimatrakak betondoa zimurtu dute. Beraiek ez dira zaindu beharreko haur txikiak!

Halako batean, gainera, oihuka hasi da Edurren aita:

—Edur! Goazen beste frontoi batera. Neskekin ez duzu inoiz ikasiko! Ikusi al duzu inoiz emakume pilotaririk telebistan? Ezagutzen al duzu baten bat?

MOTZ!

4



Haurren artera salto egin eta sekulako ukaldia eman dio pilotari.

Edurren aitak indar handia du. Baina Noa korrika atera da pilotaren atzetik eta justu-justu kolpea eman dio botea eta gero.


Izugarrria izan da! Tantoa!

Orduan txalo batzuk entzun dira frontoian. Ama da, eta berarekin dagoen emakume bat.

—Noa, Lea, Edur, etorri! Benetako pilotari bat aurkeztu nahi dizuet —esan die amak.

Amaren laguna, Maite, txapel asko irabazi duen pilotaria da. Oso emakume pilotari onak daudela azaldu die, baina jende askok ez dakiela.

Eta denek Edurren aitari begiratu diote. Frontoia beste puntan dago, esku minduari putz eginez.



Irria aldizkaria 83. zk.

- 1** Nork idatzi du testu hau? Nork egin ditu testu honetako marrazkiak?

Idazlea:

Marrazkilaria:



2 Ipuineko pasarte batzuk nahastu egin zaizkigu. Ordenatu, zenbakiak jarritz.

- ☐ Ama Edurren aitaren jarrerarekin deseroso dago.
- ☐ Marimatrakak eta Edur pilotan jolasten ari dira.
- ☐ Edurrek tanto bat galtzen duen bakoitzean aitak txistu egiten dio.
- ☐ Amak emakume pilotari on bat ekarri du frontoira.
- ☐ Marimatrakak frontoira joan dira amarekin.

3 Norekin joan dira frontoira Noa eta Lea?

.....

4 Norekin elkartu dira frontoian?

.....

5 Zer iruditzen zaio Edurren aitari neskak pilotan aritzea?

- ☐ Ongi, neskek mutilek bezain ongi jolasten dutela uste du.
- ☐ Gaizki, pilota emakumeen kirola ez dela iruditzen zaio.

Eta zuri zer iruditzen zaizu neskak pilotan aritzea?

6 Zer egiten du aitak Edurrek tanto bat galtzen duen bakoitzean? Egokia al da jarrera hori? Zergatik?

.....

.....

.....

7 Ama, Edurren aitaren jarrera ikusita, deseroso sentitu da eta irten egin da frontoitik. Nora joan da?

8 Zer gertatzen da emakume kirolariekin?

a) Aukeratu erantzun zuzena.

- ☐ Ez dago emakume kirolaririk, horregatik ez ditugu ezagutzen.
- ☐ Badaude emakume kirolari onak, baina ez dira oso ezagunak.

b) Zer egin dezakezu zuk emakume kirolariak ezagutzera emateko?

9 Jarraian, euskal emakume kirolariak ezagutzeko aukera daukazu. Elkartu kirolari bakoitza dagokion argazkiarekin. Osatu taula eta, ondo egiten baduzu, hitz bat osatuko duzu.

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

1

Eneritz Borinaga Zabala

(Plentzia, 1988ko otsailaren 24a) boxeolaria da. Minieuli pisuan (45-48 kg) jokutzen du eta, 2017an, Espainiako txapelduna izan zen.

2

Maite Maiora Elizondo

(Mendaro, 1980ko ekainaren 20a) mendi-lasterkaria da. Euskal Herriko hainbat mendi-lasterketa irabazteaz gain, 2016an, Munduko Txapelketan, skymarathon modalitateko txapelduna izan zen. Eta 2017an, Skyrunner World Series txapelketa irabazi zuen.

3

Rakel Mateo Uriarte

(Mungia, 1975eko ekainaren 13a) triatlota paralinpikoa da, urritasun fisikoen PT2 mailan aritzen dena. Nazioarteko txapelketetan dominak irabazitakoa, estreinakoz 2016ko Udako Paralinpiar Jokoetan parte hartu zuen.

4

Sara Carracelas García

(Donostia, 1981eko irailaren 15a) igerilari paralinpikoa da. Lau aldiz hartu du parte Paralinpiar Jokoetan (Atlanta 96, Sidney 00, Atenas 04 eta Beijing 08) eta hamar domina lortu ditu (urrezko 6, zilarrezko 1 eta brontzezko 3). Horrez gain, Europako eta Munduko txapelketetan hainbat domina lortutakoa da.

5

Patricia Espinar Labián

(Usansolo, 1985eko apirilaren 16a) pilotaria da. Trinketeetan Munduko txapelduna izan zen 2008an. 2017an Kolonbian antolaturiko Munduko One Wall txapelketan jokatzearabaki zuen eta urrezko bi domina eskuratu zituen: bakarkakoa eta binakakoa; hau, Amaia Araiztegirekin batera.

6

Idoia Etxeberria Ikutza

(Orio, 1992) harri-jasotzailea da. 163 kiloko harria altxa zuen lehen emakumea izan zen, 2016an.

7

Maialen Chourraut Iurramendi

(Lasarte-Oria, 1983ko martxoaren 8a) piraguista da eta ur bizietako kayak (K1) modalitatean aritzen da. Miguel Indurainekin batera euskal kirolari bakarra da inoiz urrezko domina olinpiarra lortu duena.

8

Oiana Blanco Etxeberria

(Orio, 1983ko maiatzaren 13a) judoka da, Judo Club Usurbil taldeko kidea. 2009an, Munduko Txapelketan, zilarrezko domina lortu zuen eta 2010ean, Europako Txapelketan, brontzezkoa.

9

Alba Menéndez Martínez

(Zarautz, 1991ko azaroaren 14a) eskubaloijokalaria da. Bost aldiz irabazi du Espainiako Liga bere taldearekin, beste bost aldiz Erreginaren Kopa eta zazpi aldiz Euskal Herriko Kopa.

10

Edurne Pasaban Lizarribar

(Tolosa, 1973ko abuztuaren 1a) alpinista da, munduko hamalau zortzimilakoak igo dituen lehen emakumea. 2001ean igo zuen lehen zortzimilakoa eta 9 urte ondoren, 2010ean, osatu zituen hamalau zortzimilakoak Pasabanez.



- 10 Bilatu letra-zopa honetan aurreko ariketan agertu diren 10 emakumeren izenak. Soberan geratuko zaizkizun letrekin mezu sekretua irakurriko duzu.

LETRA-ZOPA



MEZU SEKRETUA

MARIMATRAKEN ABENTURA ETA
ISTORIO GEHIAGO EZAGUTU
NAHI AL DITUZU?

